

ZINEMATEKA

# ZINEMAREN HISTORIAKO 50 HARRIBITXI

# 50 JOYAS DE LA HISTORIA DEL CINE

**PROGRAMAREN LEHENENGO PARTEA**
PRIMERA PARTE DEL PROGRAMA

2019 **URTARRILA** ENERO › **APIRILA** ABRIL

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

Bilbao

# 2019AN, ZINEMAGINTZAKO KLASIKOAK
# EN 2019, CLÁSICOS DEL CINE

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao, Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentroa, zinema eta ikus-entzunezkoen tokia da Bilbon. Programazio egonkorra izateaz gain, inguru honetan egiten diren zinemaldi eta topaketarik gailenak hemen izaten dira. Zentroko programazioaren oinarrizko ildoetako bat da, arloko espezialistekin aritzen gara lanean, eta proiektu egonkorrak jorratzen ditugu, proposamen klasikoak eta garaikideak, estreinaldiak, zinemaldiak eta ziklo tematikoak uztartuz, eta BIdeOtik ere eskainiz, ikus-entzunezko narratiba esperimentalagoen programa.

Programazioaren barruan, Zinemateka erreferentziako puntua da, zinemaz behar den moduan gozatu ahal izateko: zinema-areto batean, pantaila handian, jatorrizko bertsioan eta prezio eskuragarrian. Eta ez bakarrik klasiko handiak berrikusiz gozatzeko. Sorkuntza garaikidea begiesteko ere bai, ikuslerik zinefiloenak erakarrita, eta, orobat, online plataformak eta streaming zinema gaindituz, zirkuitu komertzialean ez dauden artelanak abiaburutzat hartuta, hizkuntza zinematografikoa eta ikus-entzunezkoak sakonago aztertu nahi dituzten belaunaldi berriak ere gureganatzeko.

2019. urtean, 'Zinemaren historiako 50 harribitxi' zikloa aurkeztuko dugu. Era horretan, azken bolada honetan izan den zinemarik onena zeharka berrikusiko dugu. Lehenengo lauhilekoan, Federico Fellini, Jean-Luc Godard edo Agnès Varda zuzendarien lana aztertuko dugu, beren garaiko ikur bilakatu diren zenbat interpretatzaile ere bai, hala nola Marylin Monroe, Charles Chaplin, Carole Lombard eta Gene Kelly, eta zinemagintzako eginkizunik garrantzitsuenetako bat egiten duten gidoilariei erreparatuta.

Zikloa urte osoan barrena izango da. Hautaketa egiteko, aintzat hartu ditugu kalitatea, titulu hauek guztion imaginarioan izan duten garrantzia, eta arte honetan historia egin duten gizonei eta emakumeei ezinbestez egin beharreko aintzatespena. Alabaina, hautaketa honetan ez da falta gustuaren eragin subjektiboa. Hortaz, esan dezakegu dauden guztiak badirela, baina, ziurrena, diren guztiak ez daudela. Hurrengo ziklorako utziko ditugu honetan sartu ez direnak eta zuek iradoki nahi dituzuenak. Oraingoz, espero dugu klasikoen lehen bilduma hau zuen interesekoa izatea. Zineman ikusiko dugu elkar. //

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao, Centro de Sociedad y Cultura Contemporánea es el lugar del cine y los audiovisuales en Bilbao. Además de nuestra programación estable, aquí tienen lugar los festivales y encuentros más destacados del entorno. Es una de las líneas básicas de programación del Centro, en la que trabajamos con especialistas del medio y desarrollamos proyectos estables con propuestas clásicas y contemporáneas, estrenos, festivales, ciclos temáticos y BIdeOtik, un programa de narrativas audiovisuales más experimentales.

Dentro de esta programación, la Zinemateka es el punto de referencia para disfrutar del cine como se merece: en una sala de cine, en pantalla grande, en versión original y a un precio asequible. Y no solo para disfrutar de una revisión de los grandes clásicos. También para apreciar la creación contemporánea que atrae tanto a las comunidades de públicos más cinéfilas como a las nuevas generaciones que, más allá de plataformas on line y cine en streaming, están interesadas en profundizar en el conocimiento del lenguaje cinematográfico y audiovisual a partir de obras que no se encuentran en el circuito comercial.

En este 2019 presentamos el ciclo '50 joyas de la historia del cine'. Un repaso transversal a lo mejor del cine de los últimos tiempos que en este primer cuatrimestre revisa el trabajo de directores y directoras como Federico Fellini, Jean-Luc Godard o Agnès Varda, e intérpretes que se han convertido en emblemas de su tiempo, desde Marylin Monroe a Charles Chaplin o de Carole Lombard a Gene Kelly, en una de las tareas más imprescindibles del cine, la de guionistas.

El ciclo se extenderá a lo largo del año con una selección que tiene en cuenta la calidad, la importancia de estos títulos en el imaginario común y el necesario reconocimiento tanto de hombres como de mujeres que han hecho historia en este arte. Pero esta elección no está exenta de la influencia subjetiva del gusto. Podemos decir pues que son todas las que están aunque seguramente no están todas las que son. Dejaremos para un próximo ciclo aquellas que no hayan entrado en este y que nos podáis sugerir. De momento, espero que os interese esta primera recopilación de clásicos. Nos vemos en el cine. //

**Fernando Pérez**
**Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko Zuzendaria** Director de Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao

# ZINEMAREN HISTORIAKO 50 HARRIBITXI
# 50 JOYAS DE LA HISTORIA DEL CINE

XX. mendeko ikonografiaren zati handi baten oinarria den irudi bat eraikitzeko balio izan duten maisulan batzuekin gozatzea da zinemagintzaren historia ezagutzeko modurik onena. Ez da harritzekoa, beraz, ikusleek oro har, etxean edo zinema-aretoetan, garai bateko film hautatuen artean gaur egun ikusten dutena dagokion testuinguruan kokatu ahal izateko gomendioekin zerrenda ordenatuak edo ez hain ordenatuak ugari zabaldu izana.

Joan den mendeko zinemagintzaren historia (hasiera batean Hollywoodeko zine-estudioetatik abiatuta, baina Frantziako berrogeita hamargarren urteetan sortutako egileen teoria ere jasota) era irmoan, zuzendariaren edo ekoizlearen irudian oinarrituta, aurkezteko erabili izan diren arrakasta handiagoko beste irizpide batzuen aurrean, Zinematekako programa honetarako zinema-lanaren ezaugarri berezkoenetako bat aitortzea aukeratu dugu: haren aniztasuna.

Nahiz eta urte askoan film bat Federico Fellinirena ‘zelako’ uste bateratua hedatu, zer eratako zinemagintza zuzendu ahal izango zuen Riminiko maisuak harekin batera Nino Rota, Giulietta Masina, Gianni Di Venanzo, TullioPinelli edo Marcello Mastroianni lanean aritu izan ez balira?. //

La mejor manera de conocer la historia del cine es disfrutando de algunas de las obras maestras que han servido para construir una imagen sobre la que se asienta buena parte de la iconografía del siglo XX. No resulta extraño, por lo tanto, la proliferación de listas más o menos ordenadas con recomendaciones para que el público en general pueda contextualizar lo que ve hoy en día en casa o en las salas de cine con lo más selecto del pasado.

Frente a otros criterios más exitosos que han servido para presentar la historia del cine a lo largo del siglo pasado (partiendo de los estudios de cine de Hollywood en un primer momento; pero tambiéan de la teoría de los autores nacida en los años cincuenta en Francia) de una manera rotunda, sobre la base de la figura que representa la dirección o la producción, para este programa de Zinemateka hemos optado por reconocer una de las cualidades más genuinas de la obra cinematográfica: su pluralidad.

Por mucho que, durante muchos años, se extiendese el lugar común de que una película ‘era’ de Federico Fellini ¿qué habría sido del cine dirigido por el maestro de Rimini sin la colaboración de Nino Rota, Giulietta Masina, Gianni Di Venanzo, Tullio Pinelli o Marcello Mastroianni?. //

- Rubén Corral -

| | | |
|---|---|---|
| **URTARRILAK 9** DE ENERO<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:30<br><br>20:00 | **8 ½ - OTTO E MEZZO (1963)** ZORTZI ETA ERDI **/** FELLINI, OCHO Y MEDIO (8½) \| 138'. 35mm. IT-FR<br>**CLÉO DE 5 À 7 (1962)**<br>90'. DCP. FR-IT |
| **URTARRILAK 10** DE ENERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:30<br><br>19:30 | **CLÉO DE 5 À 7 (1962)**<br>90'. DCP. FR-IT<br>**8 ½ - OTTO E MEZZO (1963)** ZORTZI ETA ERDI **/** FELLINI, OCHO Y MEDIO (8½) \| 138'. 35mm. IT-FR |
| **URTARRILAK 16** DE ENERO<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:30<br><br>19:30 | **MY DARLING CLEMENTINE (1946)** ENE CLEMENTINE LAZTANA **/** PASIÓN DE LOS FUERTES \| 102'. DCP. EEBB/EEUU<br>**SUNRISE (1927)** EGUNSENTIA / AMANECER<br>94'. DCP. EEBB/EEUU |
| **URTARRILAK 17** DE ENERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:30<br><br>19:30 | **SUNRISE (1927)** EGUNSENTIA / AMANECER<br>94'. DCP. EEBB/EEUU<br>**MY DARLING CLEMENTINE (1946)** ENE CLEMENTINE LAZTANA **/** PASIÓN DE LOS FUERTES \| 102'. DCP. EEBB/EEUU |
| **URTARRILAK 23** DE ENERO<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:30<br><br>19:30 | **À BOUT DE SOUFFLE (1960)** ARNASESTUKA / AL FINAL DE LA ESCAPADA \| 90'. 35mm. FR<br>**VOSKHOZHDENIYE (1977)** IGOERA / LA ASCENSIÓN<br>111'. 35mm. SESB/URSS |
| **URTARRILAK 24** DE ENERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:30<br><br>19:30 | **VOSKHOZHDENIYE (1977)** IGOERA / LA ASCENSIÓN<br>111'. 35mm. SESB/URSS<br>**À BOUT DE SOUFFLE (1960)** ARNASESTUKA / AL FINAL DE LA ESCAPADA \| 90'. 35mm. FR |
| **URTARRILAK 30** DE ENERO<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:30<br><br>19:30 | **THE HITCH-HIKER (1953)** AUTOSTOP EGILEA / EL AUTOESTOPISTA<br>71'. DCP. EEBB/EEUU<br>**TRIUMPH DES WILLENS (1935)** GOGOAREN GARAIPENA / EL TRIUNFO DE LA VOLUNTAD \| 114'. Blu-ray. DE |

| | | |
|---|---|---|
| **URTARRILAK 31** DE ENERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:30 | **TRIUMPH DES WILLENS (1935)** GOGOAREN GARAIPENA / EL TRIUNFO DE LA VOLUNTAD \| 114'. Blu-ray. DE |
| | 20:00 | **THE HITCH-HIKER (1953)** AUTOSTOP EGILEA / EL AUTOESTOPISTA<br>71'. DCP. EEBB/EEUU |
| **OTSAILAK 6** DE FEBRERO<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:30 | **THE BIG SLEEP (1946)** BETIKO LOA / EL SUEÑO ETERNO<br>114'. 35mm. EEBB/EEUU |
| | 20:00 | **THE THIRD MAN (1949)** IRUGARREN GIZONA / EL TERCER HOMBRE \| 104'. 35mm. EB/GB |
| **OTSAILAK 7** DE FEBRERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:30 | **THE THIRD MAN (1949)** IRUGARREN GIZONA / EL TERCER HOMBRE \| 104'. 35mm. EB/GB |
| | 19:30 | **THE BIG SLEEP (1946)** BETIKO LOA / EL SUEÑO ETERNO<br>114'. 35mm. EEBB/EEUU |
| **OTSAILAK 13** DE FEBRERO<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:30 | **HIROSHIMA MON AMOUR (1959)**<br>90'. Blu-ray. FR-JP |
| | 19:30 | **SHANGHAI EXPRESS (1932)** SHANGAIKO ESPRESA / EL EXPRESO DE SHANGAI \| 82'. 35mm. EEBB/EEUU |
| **OTSAILAK 14** DE FEBRERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:30 | **SHANGHAI EXPRESS (1932)** SHANGAIKO ESPRESA / EL EXPRESO DE SHANGAI \| 82'. 35mm. EEBB/EEUU |
| | 19:30 | **HIROSHIMA MON AMOUR (1959)**<br>90'. Blu-ray. FR-JP |
| **OTSAILAK 27** DE FEBRERO<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:30 | **THE CHASE (1966)** GIZA PIZTIA / LA JAURÍA HUMANA<br>134'. Blu-ray. EEBB/EEUU |
| | 20:00 | **DOWN BY LAW (1986)** LEGEAREN AZPIAN / BAJO EL PESO DE LA LEY \| 107'. 35mm. EEBB/EEUU |
| **OTSAILAK 28** DE FEBRERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:30 | **DOWN BY LAW (1986)** LEGEAREN AZPIAN / BAJO EL PESO DE LA LEY \| 107'. 35mm. EEBB/EEUU |
| | 19:30 | **THE CHASE (1966)** GIZA PIZTIA / LA JAURÍA HUMANA<br>134'. Blu-ray. EEBB/EEUU |

| | | |
|---|---|---|
| **MARTXOAK 6** DE MARZO<br>**Asteazkena** Miércoles | **17:30** | **IL GATTOPARDO (1963)** LEHOINABARRA / EL GATOPARDO<br>185'. 35mm. IT-FR |
| **MARTXOAK 7** DE MARZO<br>**Osteguna** Jueves | **18:30** | **IL GATTOPARDO (1963)** LEHOINABARRA / EL GATOPARDO<br>185'. 35mm. IT-FR |
| **MARTXOAK 13** DE MARZO<br>**Asteazkena** Miércoles | **17:30**<br><br>**20:00** | **L'ECLISSE (1962)** EKLIPSEA / EL ECLIPSE<br>126'. 35mm. IT-FR<br>**MODERN TIMES (1936)** GARAI MODERNOAK / TIEMPOS MODERNOS \| 87'. DCP. EEBB/EEUU |
| **MARTXOAK 14** DE MARZO<br>**Osteguna** Jueves | **17:30**<br><br>**19:30** | **MODERN TIMES (1936)** GARAI MODERNOAK / TIEMPOS MODERNOS \| 87'. DCP. EEBB/EEUU<br>**L'ECLISSE (1962)** EKLIPSEA / EL ECLIPSE<br>126'. 35mm. IT-FR |
| **MARTXOAK 20** DE MARZO<br>**Asteazkena** Miércoles | **17:30**<br><br>**20:00** | **THE MISFITS (1961)** EZ-EGOKITUAK / VIDAS REBELDES<br>126'. 35mm. EEBB/EEUU<br>**SMULTRONSTÄLLET (1957)** BASA MARRUBIAK / FRESAS SALVAJES \| 91'. DCP. SWE |
| **MARTXOAK 21** DE MARZO<br>**Osteguna** Jueves | **17:30**<br><br>**19:30** | **SMULTRONSTÄLLET (1957)** BASA MARRUBIAK / FRESAS SALVAJES \| 91'. DCP. SWE<br>**THE MISFITS (1961)** EZ-EGOKITUAK / VIDAS REBELDES<br>126'. 35mm. EEBB/EEUU |
| **MARTXOAK 27** DE MARZO<br>**Asteazkena** Miércoles | **17:30**<br><br>**19:30** | **AU HASARD BALTHAZAR (1966)** BALTASAR, AUSAZ / AL AZAR DE BALTASAR \| 95'. Blu-ray. FR-SWE<br>**SINGIN' IN THE RAIN (1952)** EURIPEAN ABESTUZ / CANTANDO BAJO LA LLUVIA \| 103'. 35mm. EEBB/EEUU |

| | | |
|---|---|---|
| **MARTXOAK 28** DE MARZO<br>**Osteguna** Jueves | 17:30<br><br>19:30 | **SINGIN' IN THE RAIN (1952)** EURIPEAN ABESTUZ / CANTANDO BAJO LA LLUVIA \| 103'. 35mm. EEBB/EEUU<br>**AU HASARD BALTHAZAR (1966)** BALTASAR, AUSAZ / AL AZAR DE BALTASAR \| 95'. Blu-ray. FR-SWE |
| **APIRILAK 3** DE ABRIL<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:30<br><br>20:00 | **SUNSET BOULEVARD (1950)** SUNSET BOULEVARD / EL CREPÚSCULO DE LOS DIOSES \| 110'. DCP. EEBB/EEUU<br>**THE GENERAL (1926)** JENERALA / EL MAQUINISTA DE LA GENERAL \| 67'. DCP. EEBB/EEUU |
| **APIRILAK 4** DE ABRIL<br>**Osteguna** Jueves | 17:30<br><br>19:00 | **THE GENERAL (1926)** JENERALA / EL MAQUINISTA DE LA GENERAL \| 67'. DCP. EEBB/EEUU<br>**SUNSET BOULEVARD (1950)** SUNSET BOULEVARD / EL CREPÚSCULO DE LOS DIOSES \| 110'. DCP. EEBB/EEUU |
| **APIRILAK 10** DE ABRIL<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:30 | **PARIS, TEXAS (1984)**<br>145'. Blu-ray. AEF-FR/RFA-FR |
| **APIRILAK 11** DE ABRIL<br>**Osteguna** Jueves | 18:30 | **PARIS, TEXAS (1984)**<br>145'. Blu-ray. AEF-FR/RFA-FR |

**Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpititulatuak (JBGA)**
**Sarrerak: Zinemako txarteldegian eta www.golem.es helbidean**
Todas las proyecciones son en Versión Original, con subtítulos en castellano (VOSE)
Entradas: Taquillas de Cines Golem Alhóndiga y en www.golem.es

**4,5€ / 3,5€** con Tarjeta **Az Txartelarekin. + info: www.azkunazentroa.eus**




## 8 ½ - OTTO E MEZZO (1963)
## ZORTZI ETA ERDI
## FELLINI, OCHO Y MEDIO (8½)

**138'. 35mm. Italia-Frantzia** / Italia-Francia

**Z/D:** Federico Fellini

**G:** Tullio Pinelli, Federico Fellini, Ennio Flaiano, Brunello Rondi

**A/R:** Marcello Mastroianni, Claudia Cardinale, Anouk Aimée, Sandra Milo, Rossella Falk, Barbara Steele, Madeleine Lebeau, Caterina Boratto, Edra Gale, Guido Alberti

Arrakasta borobil bat eskuratu ondoren, zinema-zuzendari batek sormen-krisialdian dago, eta film berri bat egiteko ahaleginetan dabil, alferrik. Egoera horretan, bizitzako gertaerarik garrantzitsuenak aztertzen hasi da, eta maite izan dituen emakume guztiekin gogoratzen.

Después de obtener un éxito rotundo, un director de cine atraviesa una crisis de creatividad e intenta inútilmente hacer una nueva película. En esta situación, empieza a pasar revista a los hechos más importantes de su vida y a recordar a todas las mujeres a las que ha amado.




## CLÉO DE 5 À 7 (1962)

**90'. DCP. Frantzia-Italia** / Francia-Italia

**Z-G/D-G:** Agnès Varda

**A/R:** Corinne Marchand, Antoine Bourseiller, Dominique Davray, Dorothée Blank, Michel Legrand, José Luis de Vilallonga, Loye Payen, Renée Duchateau, Lucienne Marchand, Serge Korber

Cleo kantari gaztea egonezinik dago, azterketa mediko baten emaitzen zain. Igarle batek, hari botatako kartak irakurrita, minbizia duela iragarri dio, eta hil egin daitekeela; orduan, haren ezinegona handitu egin da. Emaitzen zain dagoen bitartean denbora betetze aldera, Aljerian soldaduska egitera abiatzekotan den soldadu gaztea ezagutu du Cleok; heriotzari dion beldurra azalduko dio soldaduari.

Cleo, una joven cantante, espera impaciente los resultados de un examen médico. Cuando una adivina que lee las cartas le revela que tiene cáncer y que puede morir, su inquietud aumenta. Tratando de ocupar su tiempo a la espera de los resultados, Cleo conoce a un joven soldado, a punto de partir para hacer el servicio militar en Argelia, al que confía su temor a la muerte.




## MY DARLING CLEMENTINE (1946)
ENE CLEMENTINE LAZTANA
PASIÓN DE LOS FUERTES

**102'. DCP. Estatu Batuak** / Estados Unidos

**Z/D: John Ford**

**G: Samuel G. Engel, Winston Miller**

**A/R: Henry Fonda, Linda Darnell, Victor Mature, Cathy Downs, Walter Brennan, Tim Holt, Ward Bond, Alan Mowbray, John Ireland, Roy Roberts**

Dodge Cityko sheriff izandako Wyatt Earp-i Tombstone hiriko komisario-lanpostua eskaini diote, baina uko egingo dio, bere anaiekin batera daukan abelazkuntzako negozioan aritzea nahiago duelako. Hala eta guztiz ere, anaietako bat erail diotenean, hutsik dagoen lanpostua onartuko du,eta anaiak laguntzaile izendatu. Horrez gain, Doc Holliday izeneko jokalaria eta pistolaria adiskide eta lankide izango du.

A Wyatt Earp, antiguo sheriff de Dodge City, le ofrecen el puesto de comisario de la ciudad de Tombstone, pero lo rechaza porque le interesa más el negocio ganadero al que se dedica con sus hermanos. Sin embargo, cuando uno de ellos muere asesinado, acepta el puesto vacante y nombra ayudantes a sus hermanos. Contará también con la amistad y la colaboración de un jugador y pistolero llamado Doc Holliday.




## SUNRISE (1927)
EGUNSENTIA
AMANECER

**94'. DCP. Estatu Batuak** / Estados Unidos

**Z/D: Friedrich Wilhelm Murnau**

**G: Carl Mayer. Hermann Sudermann ideia batetik abiatuta** / A partir de una idea de Hermann Sudermann

**A/R: George O'Brien, Janet Gaynor, Margaret Livingston, Bodil Rosing, J. Farrell McDonald, Ralph Sipperly, Jane Winton, Arthur Housman, Eddie Boland**

Baserritar bat pozik bizi da emaztearekin landa-lurretan. Baina hiriko emakume erakargarri bat iritsi da, eta hartaz maitemintzen hasiko da. Hortik aurrera, bera eta bere maitale berri sofistikatuaren arteko eragozpen gisa ikusten hasiko da emaztea.

Un granjero convive felizmente en el campo con su esposa. Pero la aparición de una seductora mujer de la ciudad hace que comience a enamorarse de ésta, y a pensar que su mujer es un estorbo que se interpone en la felicidad entre él y su nueva y sofisticada amante.




## À BOUT DE SOUFFLE (1960)
## ARNASESTUKA
## AL FINAL DE LA ESCAPADA

**90'. 35mm. Frantzia** / Francia

**Z/D: Jean-Luc Godard**

**G: Jean-Luc Godard. François Truffaut-en ideia batean oinarrituta** / Basado en una idea de François Truffaut

**A/R: Jean Seberg, Jean-Paul Belmondo, Daniel Boulanger, Henri-Jacques Huet, Roger Hanin, Van Doude, Claude Mansard, Liliane Dreyfus, Michel Fabre, Jean-Pierre Melville**

Michel Poiccard figurante ohi bat da, Bogarten mireslea. Parisera joateko Marseillan auto bat lapurtu ostean, poliziako motor-gidari bat hilko du istripuz. Inolako barne-harrik gabe, bidaian aurrera jarraituko du. Parisera iritsi denean, Amerikan ezagutu ez zuen askatasuna aurkitu duela uste du. Hala ere, Michelek ez daki polizia haren bila dabilela, motorzalearen heriotza eragin zuelako.

Michel Poiccard es un ex-figurante de cine admirador de Bogart. Tras robar un coche en Marsella para ir a París, mata fortuitamente a un motorista de la policía. Sin remordimiento alguno, prosigue el viaje. En París, cree haber hallado la libertad que no conoció en América. Lo que Michel ignora es que la policía lo está buscando por la muerte del motorista.




## VOSKHOZHDENIYE (1977)
## IGOERA
## LA ASCENSIÓN

**111'. 35mm. Sobietar Batasuna** / Unión Soviética

**Z/D: Larisa Shepitko**

**G: Yuri Klepikov, Larisa Shepitko**

**A/R: Boris Plotnikov, Vladimir Gostyukhin, Sergei Yakovlev, Lyudmila Polyakova, Viktoriya Goldentul, Anatoly Solonitsyn, Mariya Vinogradova, Nikolai Sektimenko**

Bigarren Mundu Gerran, bi partisano sobietar taldetik aldendu, eta landetxe txiki batera joaten dira, hornigai bila, taldekoak gose baitira. Hala ere, alemanak lehenago iritsi direnez, okupatuta dagoen lurraldea zeharkatzen jarraitu beharko dute, beste leku baten bila, hornigaiak lortzeko.

Durante la Segunda Guerra Mundial, dos partisanos soviéticos se apartan del grupo, que está hambriento, para ir a una pequeña granja a coger provisiones. Pero como los alemanes han llegado primero, tendrán que seguir recorriendo territorio ocupado para encontrar otro sitio donde abastecerse.




## THE HITCH-HIKER (1953)
## AUTOSTOP EGILEA
## EL AUTOESTOPISTA

**71'. DCP. Estatu Batuak** / Estados Unidos

Z/D: Ida Lupino

G: Ida Lupino, Collier Young

A/R: Edmond O'Brien, Frank Lovejoy, William Talman, José Torvay, Sam Hayes, Wendell Niles, Jean Del Val, Clark Howat, Natividad Vacío, Wade Crosby

Adin ertaineko Roy Collins eta Gilbert Bowen, hiri handia atzean utzita, Mexikorantz abiatu dira errepidean aurrera. Mexiko eta AEBak bereizten dituen mugatik kilometro batzuetara, auto-stop egile bat jasotzeko proposatu dio Gilbertek Royri, eta gelditu egin dira; Emmett Myers du izena. Hasierako abegi onaren ondoren, egoera gero eta gehiago estutzen doa, ordea, Roy eta Gilbert konturatzen direnean jaso dutena gidarien artean izua eragiten ari den psikopata dela.

Roy Collins y Gilbert Bowen, ambos de mediana edad, dejan atrás la gran ciudad para dirigirse por carretera hacia México. A varios km de la frontera que separa México y USA, Roy acepta la proposición de Gilbert para llevar a un autoestopista llamado Emmett Myers. De la cordialidad inicial se pasa a un estado de tensión creciente cuando Roy y Gilbert se dan cuenta de que es un psicópata que está sembrando el pánico entre los conductores.



## TRIUMPH DES WILLENS (1935)
## GOGOAREN GARAIPENA
## EL TRIUNFO DE LA VOLUNTAD

**114'. Blu-ray. Alemania**

Z/D: Leni Riefenstahl

G: Leni Riefenstahl, Walter Ruttmann, Eberhard Taubert

A. Dokumentala/R. Documental: Adolf Hitler, Hermann Göring, Josef Goebbels, Reinhard Heydrich, Fritz Todt, Viktor Lutze, Robert Ley, Rudolf Hess, Heinrich Himmler

Alemania, 1934. urtea. Urtebete lehenago iritsia zen Adolf Hitler agintera. Nurembergen, alderdi nazionalsozialista biltzar aberkoia ospatzen ari da garaipen-giroan, Alemaniako herriaren eta ariar arrazaren balioak goretsiz.

Alemania, año 1934. Adolf Hitler acababa de llegar al poder un año antes. En Nuremberg, el partido nacionalsocialista celebra un triunfalista y patriótico congreso en el que se exaltan los valores del pueblo alemán y la raza aria.




## THE BIG SLEEP (1946)
BETIKO LOA
EL SUEÑO ETERNO

**114'. 35mm. Estatu Batuak** / Estados Unidos

**Z/D: Howard Hawks | G: Leigh Brackett, Jules Furthman, William Faulkner. Raymond Chandler-en eleberrian oinarrituta** / Basado en la novela de Raymond Chandler.

**A/R: Humphrey Bogart, Lauren Bacall, John Ridgely, Martha Vickers, Dorothy Malone, Peggy Knudsen, Regis Toomey, Charles Waldron, Elisha Cook Jr., Bob Steele**

Milioidun jeneral xelebre batek kontu ilun samarretan nahastuta dabiltzan bi alaba ditu. Hori dela eta, Philip Marlowe detektibe pribatuari deitzea erabaki du, etxeko arazoak konpon diezazkion. Marlowe ikertzen hasi orduko, auziak adar askotarikoak dituela konturatuko da, nahaste-borraste korapilatsua bihurtzeraino.

Un general millonario y excéntrico tiene dos hijas que están involucradas en asuntos más bien turbios. Decide entonces llamar al detective privado Philip Marlowe para que resuelva sus problemas familiares. Cuando Marlowe empieza a investigar, descubre muy pronto que las diversas ramificaciones del asunto lo convierten en una auténtica maraña.




## THE THIRD MAN (1949)
HIRUGARREN GIZONA
EL TERCER HOMBRE

**104'. 35mm. Erresuma Batua** / Reino Unido

**Z/D: Carol Reed**

**G: Graham Greene**

**A/R: Joseph Cotten, Orson Welles, Alida Valli, Trevor Howard, Paul Hörbiger, Ernst Deutsch, Erich Ponto, Siegfried Breuer, Hedwig Bleibtreu, Bernard Lee**

Holly Martins idazle amerikarra Vienara iritsi da Bigarren Mundu Gerraren bukaeran, ustez trafiko-istripu batean hil zen haren lagun Harry Lime kontrabandista ezagutu zuten pertsonak bilatzeko asmoz. Heriotza hori misterioak inguratzen duela dirudi, eta Martinsek ez du onik izango argitu arte.

El escritor americano Holly Martins viaja a Viena al final de la Segunda Guerra Mundial para localizar a las personas que conocieron a su amigo Harry Lime, un contrabandista supuestamente fallecido en un accidente de tráfico. Su muerte parece envuelta en un misterio que Martins está decidido a resolver.




## HIROSHIMA MON AMOUR (1959)

**90'. Blu-ray. Frantzia-Japonia** / Francia-Japón

**Z/D: Alain Resnais**

**G: Marguerite Duras**

**A/R: Emmanuelle Riva, Eiji Okada, Stella Dassas, Pierre Barbaud, Bernard Fresson**

Hiroshiman pelikula bat filmatu ondoren, Frantziako neska aktore batek azken gaua du hotel batean, japoniar gizon batekin. Ezezagunak dira elkarrekiko, baina gau bakar bateko abentura laburra izan zitekeena idilio bete bihurtuko da, Frantzian urte batzuk lehenago bizi izandako ezinezko maitasun bat gogora ekarriko diona.

Después de rodar una película en Hiroshima, una joven actriz francesa pasa su última noche en un hotel, en compañía de un japonés. Son dos desconocidos, pero lo que podría ser la fugaz aventura de una noche se convierte en un intenso idilio que hace que ella rememore un amor imposible vivido en Francia unos años antes.




## SHANGHAI EXPRESS (1932)
## SHANGAIKO ESPRESA
## EL EXPRESO DE SHANGAI

**82'. 35mm. Estatu Batuak** / Estados Unidos

**Z/D: Josef von Sternberg**

**G: Jules Furthmann. Harry Herveyren istorio batean oinarrituta** / Basado en una historia de Harry Hervey

**A/R: Marlene Dietrich, Clive Brook, Anna May Wong, Warner Oland, Eugene Pallette, Lawrence Grant, Louise Closser Hale, Gustav von Seyffertitz, Emile Chautard, Leonard Carey**

Donald Harvey kapitainak utzi zuenetik, Lily izen ona bereganatzen ari da abenturazale ospetsu gisa. Nolanahi ere, egoera egiaz korapilatuko da bi maitale ohiek Shanghaira doan trenean elkarrekin topo egiten dutenean. Hainbat herrialde eta ezaugarritako bidaiariz osatutako talde batekin partekatuko dute bidaia, eta haien artean Lilyk baztertutako merkatari zinez susmagarri bat doa.

Tras ser plantada por el capitán Donald Harvey, Lily gana reputación como una famosa aventurera. Pero la situación se complica cuando estos ex amantes se encuentran en el tren camino de Shanghai. Compartirán sitio con un grupo de pasajeros de distintas nacionalidades y clases incluido un comerciante muy sospechoso rechazado por ella.



Irudia/Imagen: FilmAffinity

## THE CHASE (1966)
## GIZA PIZTIA
## LA JAURÍA HUMANA

**134'. Blu-ray. Estatu Batuak** / Estados Unidos

**Z/D: Arthur Penn**

**G: Lillian Hellman, Horton Foote-ren obran oinarrituta** / Basado en la obra de Horton Foote

**A/R: Marlon Brando, Jane Fonda, Robert Redford, E. G. Marshall, Angie Dickinson, Janice Rule, Miriam Hopkins, Martha Hyer, Richard Bradford, Robert Duvall**

Espetxetik ihes egin duen gizon bat bere herrira itzuli da, baina herrikideek, erabat okerrera jotako jendea izanik, benetako ehiza eragingo dute haren aurka, eurentzat jolas hutsa izango balitz bezala. Sheriffa soilik ahaleginduko da hura lintxatzea ekiditen.

Un hombre que se ha escapado de la cárcel vuelve a su pueblo, pero sus vecinos, gentes absolutamente degradadas, emprenden contra él una auténtica cacería como si se tratara de una diversión más. Sólo el sheriff tratará de evitar su linchamiento.


Irudia/Imagen: FilmAffinity

## DOWN BY LAW (1986)
## LEGEAREN AZPIAN
## BAJO EL PESO DE LA LEY

**107'. 35mm. Estatu Batuak** / Estados Unidos

**Z-G/D-G: Jim Jarmusch**

**A/R: Tom Waits, Roberto Benigni, John Lurie, Nicoletta Braschi, Ellen Barkin, Billie Neal, Rockets Redglare, Vernel Bagneris, Joy Houck Jr., Richard Boes**

Zack, Jack eta Roberto ziega-kideak dira espetxe batean. Zack DJa da; Jack, putazain ziztrina, eta Roberto, turista italiarra.

Zack, Jack y Roberto comparten celda en una cárcel. Zack es un DJ; Jack, un chulo de poca monta y Roberto, un turista italiano.



Irudia/Imagen: FilmAffinity

## IL GATTOPARDO (1963)
LEHOINABARRA
EL GATOPARDO

**185'. 35mm. Italia-Frantzia** / Italia-Francia

Z/D: Luchino Visconti

G: Suso Cecchi D'Amico, Pasquale Festa Campanile, Enrico Medioli, Massimo Franciosa, Luchino Visconti

A/R: Burt Lancaster, Claudia Cardinale, Alain Delon, Paolo Stoppa, Rina Morelli, Romolo Valli, Mario Girotti, Pierre Clémenti, Lucilla Morlacchi, Giuliano Gemma

Italiaren bateratze garaia da Piamonte inguruan. Kontakizuna Palermon garatzen da, eta protagonistak Salinako printze Don Fabrizio eta haren familia dira. 1860an Garibaldiren gudarosteek Sizilia inbaditu ostean, nabarmen eraldatuko da haien bizitza. Liskarretatik ihes egiteko asmoz, familia Donnafugatan daukan landa-etxera joango da, babestera.

Es la época de la unificación de Italia en torno al Piamonte. La acción se desarrolla en Palermo y los protagonistas son Don Fabrizio, Príncipe de Salina, y su familia, cuya vida se ve alterada tras la invasión de Sicilia por las tropas de Garibaldi en 1860. Para alejarse de los disturbios, la familia se refugia en la casa de campo que posee en Donnafugata.



Irudia/Imagen: FilmAffinity

## L'ECLISSE (1962)
EKLIPSEA
EL ECLIPSE

**126'. 35mm. Italia-Frantzia** / Italia-Francia

Z/D: Michelangelo Antonioni

G: Michelangelo Antonioni, Tonino Guerra

A/R: Monica Vitti, Alain Delon, Francisco Rabal, Lilla Brignone, Rossana Rory, Mirella Ricciardi, Louis Seigner

Vittoriak, Riccardo bikotekidearekin izandako eztabaida sutsuaren ostean, harremana amaitzea erabaki du. Amarekin batera askatasunaz gozatzen dabilen bitartean, burtsako artekari Piero gazte erakargarria ezagutu du, limurtzaile harroputza, eta pasioz betetako maitasun-harremana biziko du harekin.

Vittoria, tras una acalorada discusión, decide romper con su novio Riccardo. Mientras disfruta de su libertad en compañía de su madre, conoce a Piero, un joven y atractivo corredor de bolsa, un seductor arrogante con el que mantiene un apasionado romance.




## MODERN TIMES (1936)
## GARAI MODERNOAK
## TIEMPOS MODERNOS

**87'. DCP. Estatu Batuak** / Estados Unidos

**Z-G/D-G:** Charles Chaplin

**A/R:** Charlie Chaplin, Paulette Goddard, Henry Bergman, Stanley Sandford, Chester Conklin, Hank Mann, Stanley Blystone, Allan Garcia, Dick Alexander, Cecil Reynolds

Muntatzeko katearen erritmo eroak akituta, metalgintzako langile batek burua galdu du. Ospitale batean bere onera etorri ondoren, espetxean sartu dute kasualitate hutsez manifestazio batean parte hartzeagatik. Espetxean, berriro ere asmorik izan gabe, matxinada bat kontrolatzen lagunduko du, eta, horri esker, aske geldituko da. Kanpora irtendakoan, bizirik irauteko borrokari lotuko zaio atzera berriz.

Extenuado por el frenético ritmo de la cadena de montaje, un obrero metalúrgico acaba perdiendo la razón. Después de recuperarse en un hospital, es encarcelado por participar en una manifestación en la que se encontraba por casualidad. En la cárcel, también sin pretenderlo, ayuda a controlar un motín, gracias a lo cual queda en libertad. Una vez fuera, reemprende la lucha por la supervivencia.




## THE MISFITS (1961)
## EZ-EGOKITUAK
## VIDAS REBELDES

**125'. 35mm. Estatu Batuak** / Estados Unidos

**Z/D:** John Huston

**G:** Arthur Miller

**A/R:** Marylin Monroe, Clark Gable, Montgomery Clift, Thelma Ritter, Eli Wallach, James Barton, Kevin McCarthy, Estelle Winwood, Philip Mitchell, Rex Bell

Nevadako Renora dibortziatzera iritsi den Roslyn Tabor gazteak behizain zahar bat ezagutu du, eta egun batzuetan haren txabolan gelditzea erabaki. Handik denbora gutxira, mendian zaldi basati talde bat aurkituko du. Zaldiak harrapatu eta haien haragia saltzea erabakiko du, rodeoetan espezialista den behizain baten laguntzarekin.

Roslyn Tabor, una joven que llega a Reno (Nevada) para divorciarse, conoce a un viejo vaquero y decide quedarse unos días en su cabaña. Poco después, él encuentra en las montañas una manada de caballos salvajes y decide capturarlos para vender la carne, contando con la ayuda de un vaquero especialista en rodeos.




## SMULTRONSTÄLLET (1957)
## BASA MARRUBIAK
## FRESAS SALVAJES

**91'. DCP. Suedia** / Suecia

**Z-G/D-G: Ingmar Bergman**

**A/R: Victor Sjöström, Bibi Andersson, Ingrid Thulin, Gunnar Björnstrand, Jullan Kindahl, Björn Bjelfvenstam, Naima Wifstrand, Gunnel Broström, Gertrud Fridh, Max von Sydow**

Borg irakasleak Lund hirira joan behar du, hango unibertsitatean omenaldi bat egingo baitiote. Bere hilotza ikusi du amets batean, eta, horrekin izututa, bidaia errainarekin autoan egitea erabaki du. Erraina etxetik alde eginda dago, senarrarekin eztabaida izan baitu, horrek seme-alabarik izan nahi ez duelako. Bidaian zehar, haurra zenean oporrak igarotzen zituen etxean gelditu dira.

El profesor Borg debe ir a la ciudad de Lund para recibir un homenaje de su universidad. Sobrecogido, tras un sueño en el que contempla su propio cadáver, decide emprender el viaje en coche con su nuera, que acaba de abandonar su casa, tras una discusión con su marido, porque se niega a tener hijos. Durante el viaje se detiene en la casa donde pasaba las vacaciones cuando era niño.




## AU HASARD BALTHAZAR (1966)
## LTASAR, AUSAZ
## AL AZAR DE BALTASAR

**95'. Blu-ray. Frantzia-Suedia** / Francia-Suecia

**Z-G/D-G: Robert Bresson**

**A/R: Anne Wiazemsky, Walter Green, François Lafarge, Jean-Claude Guilbert, Philippe Asselin, Pierre Klossowski, Nathalie Joyaut**

Baltasar astoak bizitzako lehen urteak alaitasunez eta umeen jolasez inguratuta emango ditu. Helduaroan, aldiz, zamalanetarako piztia bezala erabiliko dute jabe guztiek, eta tratu txarra emango diote.

Baltasar es un burro que vive sus primeros años rodeado de la alegría y los juegos de los niños hasta llegar a la edad adulta, en que es utilizado como una bestia de carga y maltratado por sus diferentes amos.



Irudia/Imagen: FilmAffinity

## SINGIN' IN THE RAIN (1952)
EURIPEAN ABESTUZ
CANTANDO BAJO LA LLUVIA

**103'. 35mm. Estatu Batuak** / Estados Unidos

Z/D: Stanely Donen, Gene Kelly
G: Betty Comden, Gene Kelly
A/R: Gene Kelly, Donald O'Connor, Debbie Reynolds, Jean Hagen, Millard Mitchell, Cyd Charisse, Rita Moreno, Douglas Fowley, Madge Blake, Bobby Watson

Kathy Selden aktoregaia ezagutu aurretik, zinema mutuko Don Lockwood idoloak uste zuen den-dena zeukala: ospea, aberastasuna eta arrakasta. Baina aktore izan nahi duen emakumea ezagututakoan, bizitzan egiaz falta zitzaiona huraxe dela konturatuko da. Soinudun zinema jaiotzean, Donek musikalak filmatu nahi ditu Kathyrekin, baina bien artean Lina Lamont zinema mutuko erregina sartuko da.

Antes de conocer a la aspirante a actriz Kathy Selden, el ídolo del cine mudo Don Lockwood pensaba que lo tenía todo: fama, fortuna y éxito. Pero, cuando la conoce, se da cuenta de que ella es lo que realmente faltaba en su vida. Con el nacimiento del cine sonoro, Don quiere filmar musicales con Kathy, pero entre ambos se interpone la reina del cine mudo Lina Lamont.



## SUNSET BOULEVARD (1950)
SUNSET BOULEVARD
EL CREPÚSCULO DE LOS DIOSES

**110'. DCP. Estatu Batuak** / Estados Unidos

Z/D: Billy Wilder
G: Billy Wilder, Charles Brackett, D. M. Marshman, Jr.
A/R: Gloria Swanson, William Holden, Erich von Stroheim, Nancy Olson, Fred Clark, Lloyd Gough, Jack Webb, Franklyn Farnum, Cecil B. DeMille, Buster Keaton

Joe Gillis bigarren mailako idazle gaztea da. Zorren hartzekodunen jazarpenetik ihesi, zine mutuko izar izandako Norma Desmonden etxean babestuko da ustekabean. Izar ohia errealitatetik kanpo bizi da, Max zerbitzari leialaren konpainia bakarrarekin. Une horretatik aurrera, aktoreak berak idatzitako gidoia bat zuzentzeko eskatuko dio Joeri; gidoi horrekin zinemara itzuli nahi du.

Joe Gillis es un joven escritor de segunda fila que, acosado por sus acreedores, se refugia casualmente en la mansión de Norma Desmond, antigua estrella del cine mudo, que vive fuera de la realidad, acompañada únicamente de su fiel criado Max. A partir de ese momento, la actriz pretende que Joe corrija un guion que ella ha escrito y que va a significar su regreso al cine.




## THE GENERAL (1926)
## JENERALA
## EL MAQUINISTA DE LA GENERAL

**67'. DCP. Estatu Batuak** / Estados Unidos

**Z/D:** Clyde Bruckman, Buster Keaton

**G:** Buster Keaton, Clyde Bruckman

**A/R:** Buster Keaton, Marion Mack, Glen Cavender, Jim Farley, Frederick Vroom, Charles Henry Smith, Frank Barnes, Joe Keaton, Mike Donlin, Tom Nawn

Johnny Gray tren-gidaria da AEBetako hegoaldean, eta bi amodio handi ditu: neska bat (Anabelle Lee) eta lokomotora bat (General-a). 1861ean Ondorengotza Gerra lehertzen denean, Johnnyk armadarako izen eman nahi du, baina armadak erabakitzen du atzeguardian lan hobea egingo duela. Orduan, Anabellek koldarra dela uste du. Ipartar komando batek 'General-a' lapurtu eta Anabelle bahitu duenean izango du makinistak bere benetako balioa erakusteko aukera. Zalantza izpirik izan gabe, Johnny beste lokomotora batera igoko da, eta yankien atzetik abiatuko da haren bi maiteak berreskuratzera.

Johnny Gray es maquinista en un estado del Sur y tiene dos grandes amores: una chica (Anabelle Lee) y una locomotora (La General). En 1861, al estallar la Guerra de Secesión, Johnny intenta alistarse, pero el ejército considera que será más útil en la retaguardia. Sin embargo, Anabelle cree que es un cobarde. El maquinista sólo podrá demostrar su auténtico valor cuando un comando nordista le robe 'La General' y rapte a Anabelle. Johnny no dudará un segundo en subirse a otra locomotora y perseguir a los yanquis para recuperar a sus dos amadas.




## PARIS, TEXAS (1984)

**145'. Blu-ray. Alemaniako Errepublika Federala-Frantzia / República Federal Alemana- Francia**

**Z/D:** Wim Wenders

**G:** Sam Shepard

**A/R:** Nastassja Kinski, Harry Dean Stanton, Dean Stockwell, Aurore Clement, Hunter Carson, Bernhard Wicki, Sam Berry, Claresbie Mobley, Viva Auder, John Lurie

Gizon bat Texasko basamortuan dabil, nor den gogoratu gabe. Haren anaia bere bila dabil, eta hark lau urte lehenago, emaztea eta semea utzi zituenean, nolako bizitza zuen oroitzeko ahaleginak egingo ditu. Memoria berreskuratzen hasten den neurrian, lehen ezagututako pertsonekin elkartu ahala, bere bizitzari berriro heltzeko beharra sortuko zaio.

Un hombre camina por el desierto de Texas sin recordar quién es. Su hermano lo busca e intenta que recuerde cómo era su vida cuatro años antes, cuando abandonó a su mujer y a su hijo. A medida que va recuperando la memoria y se relaciona con personas de su pasado, se plantea la necesidad de rehacer su vida.

## **SARRERAK** ENTRADAS

**Zinemako txarteldegian eta www.golem.es helbidean** Taquillas del cine y www.golem.es
**4,5€ / 3,5€** con Tarjeta **Az Txartelarekin**

**Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesedez eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartelleheihatilan ilarak saihesteko. Gainerako ikusleekin errespetuz jokatzeko, behin saioa hasi ondoren, ezin izango da aretora sartu. Ezinbestekoa bada,Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok beretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, aldez aurretik bere web-orrian jakinarazita: www.azkunazentroa.eus**

La sala de cine se abrirá al público 15 minutos antes de la proyección de la película. Se ruega a los espectadores y espectadoras que acudan con unos minutos de antelación para evitar colas en taquilla. Por respeto al resto del público, no está permitido el acceso a la sala una vez comenzada la sesión. En caso de fuerza mayor, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao se reserva el derecho a cancelar, modificar o aplazar las actividades programadas, previa comunicación pública en su web www.azkunazentroa.eus

**Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok hainbat ekitaldi antolatzen ditu urte osoan zinemari eta ikus-entzunezko sorkuntzari buruz. Hemen duzu programazioa eskuragarri: www.azkunazentroa.eus**

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao organiza a lo largo del año diferentes actividades en torno al cine y la creación audiovisual. Puedes consultar la programación en: www.azkunazentroa.eus

## **LABURDURAK** ABREVIATURAS

**A/F: Argazkia** Fotografía
**A/R: Aktoreak** Reparto
**ZB/BN: Zuri-beltzez** Blanco y negro
**Dk/Dc: Dekoratuak** Decorados
**G: Gidoia** Guion
**JB/VO: Jatorrizko Bertsioa** Versión Original
**JBG / VOES: Jatorrizko Bertsioa Gaztelaniaz** Versión Original en Castellano
**JBGA / VOSE: Jatorrizko Bertsioa Gaztelaniaz Azpitituluatua** Versión Original con Subtítulos en Castellano
**K/C: Kolorea** Color
**M: Musika** Música
**Mu/Mo: Muntaketa** Montaje
**P: Produktorea** Productor
**Pr: Ekoizpen-etxea** Compañía productora
**S: Soinua** Sonido
**Z/D: Zuzendaria** Director

**Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen, pentsa ezazu ingurumenaren inguruan duzun erantzukizunarekin eta konpromisoarekin. Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste pertsona batzuek ikus dezaten.**

Antes de llevarte este folleto, piensa en tu responsabilidad y compromiso con el medio ambiente. Si no lo vas a usar, déjalo para que otras personas puedan verlo.

**Gure programazioari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, jar zaitez harremanetan Az-rekin:**
Si quieres recibir información de nuestra programación comunícate con Az:

**www.azkunazentroa.eus**
**info@azkunazentroa.eus**
**PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO**
**944 014 014**

LG-DL: BI-129-2016

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea

Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao